

ra eraman dutenak: Eritreako Askapen\* Frontea eta Herriaren Askapen Frontea. Elkarren kontra ere jokatu dute, gerrillan ihardun duten bitartean. Baina, orain, ezkutuko\* gerrilla hura\* ageriko gudu bihurtu da, eta bi fronteak elkartu egin dira Etiopiako «diktadura militarren» kontrako gudua aurrera eramateko, eta Eritrearen askatasuna lortzeko.

Askatasuna eta burugaintasuna edo independentzia da eritrearrek eskatzen dutena, orain arte eskatu duten bezala. Etiopiak, ordea, autonomia bakarrik eskaintzen die. Izan ere, Etiopia kudeatzen\* duen militar taldeak, sozialismoa nahi badu ere, nahiago du Etiopiaren batasuna, nazionalismoa baitu bere ideologiaren oinarrietako bat: Etiopiaren batasuna aurrenik! (Paulo Agirrebaltzategi)

## Txipre: Europaren begietan

Otsailaren\* 13an, Denktash jaunak, turko-txipriotarren gidariak, Estatu berri bat aldarrikatu\* zuen. Txipren turko-txipriotarren eta greko-txipriotarren Estatu Federal berri bat sortzeko oinarriak ezarri nahi izan ditu, gidariak berak esan duenez. Honela Txipre erdibiturik geratu da, Turkiako harmadak\* hartuta zedukàn partea islaren 38 % baitzen. Txipreko lehendakari den Makariosek eta greko-txipriotarren gidaria den Kleridesek ONUra eraman dute arazoa.

Zer egin du USAk? Washingtongo Kongresuak kendu egin dio Turkiari laguntza militarra. Turkiak indarrez erantzun nahi izan dio USARI, Txipren hartu zuen partearen independentzia aldarrikatuz. Greziarekin adiskidetzearren kendu dio laguntza militarra Turkiari; eta orain ez daki zein izango den Turkiaren azken erantzuna. Estatu Batuek han dituzten 25 base militarrik botako ote dituzte? Aidean dago oraindik Amerikaren eta Turkiaren azken erantzuna.

Zer egin du Sobiet Batasunak? Isla bi alderditan banatzea kondenatu egin du Errusiak. Eta Makarios zain dagoela dirudi; eta prest legoke, Errusiari laguntza militarra, politikoa eta diplomatikoa eskatzeko. Dena dela, ONUn izango den eztabaidan Sobiet Batasuna bere alde izango du Makariosek.

Zer egin du Europak? Autonomia aldarrikatu zèn egun hartan bertan, Europako Bederatziek ageri bat atera zuten Dublinen, Txipreko bi komunitateen arteko arazoa elkarriketa bidez konpondu beharrekoa zela, eta horretarako bitartekoarena egiteko prest zeudela adieraziz. Ageri haren arabera,\* Bederatziek garrantzi handia ematen diete Txipreren independentziari eta batasunari.

Bederatzien elkartarekin loturik daude bai Grezia, bai Turkia eta bai Txipre. Horregatik kezkatzeko du benetan Europak, bere barnean sor litekeen horrelako istilurik.\*

Kissingerek eginahalak egin ditu Greziaren eta Turkiaren artean elkarriketa sortzeko, baina alferrik. Haik\* biak Atlantik Aliantzako lagunkideak direlarik, bai USAk eta bai Mendebal Europak kezka berezia dute, Txipreko arazoa konpontzeko. Horregatik, eta Errusiak saltsan nahasteko gogo handia duelarik, Italiak eta Alemaniak orain beren bitartekotasuna eskaini dute, turko-txipriotarrek eta greko-txipriotarrek Txipren duten istilua argitzeko eta konpontzeko. (Paulo Agirrebaltzategi)

## Frantziako zientzi gizonak nuklear zentralen kontra

Jakina denez, Frantziako Estatuak, 1985. urterako, mila megawatetako 45 nuklear errektore alan\* edo marxan eman beharrak ditu. Eta 2000. urterako, berriz, beste 145 gehiago. Zentral horik\* oro\* amerikarren kontrol-

pean eraikiak izanen dira, zeren\* eta, delako nuklear errektore horien alagailu\* den uranioa, haiek salduko baitiote frantses Estatuari, Mendebal Europako beste Estatuari egiten dieten bezala. Zentral horiek sortu edo sortuko dituzten arriskuak egiazkoak, errealak dira. Ordea, ez da orain arte arrisku horietaz sobera\* berri zabaldu. CFDTean sindikatuak\* direnek, jendea doi\* bat argitu dute, kazeta batzutan gai horretaz ireki berria duten sailari esker. Hala ere, jendearen baitan eragin\* handiena ukan\* duena, Frantziako lauhun zientzi gizonak berrikitan\* argitaratu duten manifestua izan da. Hona hemen ageri horren pasarte batzu:

Guk, aztertzaile, inginadore eta teknikariok, agintariak erabaki arrin bat hartu dutela uste dugu, eta, era berean, erabaki horren arriskuak eta berauen ondorioak izugarrikoak izan daitezkeela.

Arriskuak iturri askotarik sor daitezke. Hauk dira printzipalenak: a) Zentralen segurtamenik eza. (USAn, duela zenbait hilabete, nuklear segurtamenaren batzordeak\* hala erabakirik, 21 errektore geldi erazi dituzte, haietarik hirutan zenbait hodi\* zapartatu\* zirelako, eta besteak segurtamenaren araudien\* edo erregelen arabera\* eraikiak izan ez zirelako.) b) Bero kutsadura,\* eguraldia eta ekologia alda lezakeena. c) Ekai\* erreaktiboaren garraioa,\* oso posible baita berauen lapurketa. d) Zentraletarik jaurtikitzen diren hondakin erreaktiboak.

Hondakinen problema batipat\* oso serioa izan daiteke; eta Gobernuak ergelkeriaz\* eta batera kezkarik gabe jokatu duela uste dugu, berehalako abantalei\* bakarrik behatuz\* eta gerokoa alde batera utziz.

Gobernuak egin dituen inkestak,\* argibideak eta azalpenak, puntu garrantzitsuenak ukitu\* gabe egin dira beti; eta batzutan, egiazko problemak baztertuz edo isilduz. Arriskuak sistematikoki gutietsi\* dira, eta ondorioak ezkutatu,\* zentzugabeko konfiantza eman nahiz.

Hala ere, Estatuak teknikari ofizialen ikertzapenek ez dute denek gauza bera adierazten. Batzuk hau diote, eta bestek hori ezin ustezko eritzi desberdinak erakusten dituzte. Gainera, problema garrantzitsu honi buruz ez dadukagu gaur egun, ez legerik, ez aparteko kontrolik, ez ezer ere. Finantzari okituek\* eta banku handi batzuk dute azken hitza. Diruak bakarrik agintzen duenean, hondamen izugarri bat baino ez da hortik aterako. Bestalde, horrelako politika batek ez du gure askatasun nazionala indartuko, Frantziari uraniorik asko ez dagoelako. Bilaketa guti egiten da osterantzeko\* energi iturriak aztertzeko eta ditugunak zabaltzeko. Arazo honetan Gobernuak ez ditu herriaren benetako interesak kontutan hartu, ez eta gero etorriko den gizartearenak ere; eta guztiz politikoa den aukera bat, zientifikoa balitz bezala aurkeztu du.

Frantziako herri guztiari dei bat egiten diogu, zentral horik onhar ez ditzan, arriskuak eta berauen ondorioak ondo ezagutu arte.

Leuhun zientzi gizonak sinatu\* dute gutun\* hau. Haien artean oso gizon famatuak aurkitzen dira, hala nola, Marcel Froissart, «College de France» delakoan irakasle eta fisika korpuskular laborategiaren zuzendari. Gainerakoak, fisikariak, biologoak, kimikariak, toxikologoak, matematikariak dira, politik alderdi eta ideologia guztietarikoak.

Giscarden Gobernuari aupada larri bat bota diote, eta haren bitartez «erreformista» deritzen guztiei. Aupada hori ez dator edonorengandik. Frantziako zientzi gizonak hitz egin dute. Ez da guti. (Alberto Etxebeste)

die, deutse  
diete, deutsee  
dio, deutso  
diogu, deutsalgu  
diote, deutsoe  
ditzan, daizan  
dizkie, deutsez

dizkiete, deutseez  
geunden, gengoan  
lezake, leike  
zaio, jako  
zaizkio, jakoz  
zeuden, egozan  
zizkieten, eutseezan